

NOBIA SALZEDO-RI

OROIMENA.

¡Zeñen ederki duten choriyak
 uda-berryan kantatzen,
 eguzkiyaren printzak basoa
 dutenerako ikutzen!
 ¡Zeñen eztitsu eta gozoro
 duten mokoia ibiltzen,
 orri tartian pir-pirraquak
 dabiltzanean egiten!

Modu berian zera zu maisu
 euskaldunena azaltzen,
 zeren choriyak beselañen zuk
 jakindu dezun kantatzen;
 euskaldunari ispillu onak
 dizkigutzu azaldutzen,
 zure eskribu paregabeak
 dituzula erakusten,
 bada ain gogor ditugu denak
 gure barrenera sartzen,
 zeñetan sendo loturik, iñoiz
 ez degun utziko galtzen.

JOSÉ ARTOLA.